

**2022ko otsailaren 8a**

Eguneroko maitea!!!

Beno, lehenengo eta behin esan behar dizut pixka bat lasaiago nagoela. Aurreko astean oso gaizki nengoenez, nire gurasoek irakaslearekin hitz egin zuten, eta amonaren gaia gelan landu dugu. Hitz egiteak asko laguntzen du.

Horretaz gain, aurreko astean beste gai pila bat ere landu genituen.

Goiz batean, irakasle berri bat etorri zen gurekin hamaiketako osasuntsuaz hitz egitera, eta hamaiketakoa ere ekarri zigun, zein goxoa! Nik jogurta, eztia, bokata eta mandarina hartu nuen, denetarik pixka bat!

Eta, beste egun batean, Sare Sozialei eta bideojokoei buruz hitz egitera etorri zen beste hezitzaile bat. Eta gauza oso interesgarriak kontatu zizkigun.

Ni konturatu nintzen etxean batzuetan jolasten dudan bideojokoak ez direla egokiak nire adinerako, 12 urtetik gorakoentzat direlako. Eta horietan jolasteko urte batzuk itxaron behar dut.

Gainera, iruzur egiten duen jendeaz ere hitz egin zigun, eta horrek beldur pixkatxo bat eman zidan. Esan zigun pertsona heldu batzuek bideojokoetan umeen argazki eta adina jartzen dutela, gezurra esaten dutela. Zertarako? Ez dakit!

Nik, batzuetan, hitz egin izan dut ezezagunekin bideojokoko txatean. Joan den astean bertan Eneko izeneko batekin egon nintzen hitz egiten. Baina nola jakin dezaket benetan Eneko zen, ala beste pertsona bat den? Uste dut ez dudala gehiago ezezagunekin txatean hitz egingo, badaezpada.

Eta, pasahitz seguru bat nola sortu ere irakatsi zigun. Esan zigun pasahitz guztiek zenbakiak, letrak eta ikurrak eduki behar dituztela. Nik hori ez nekien, baina ikasi dut eta hemendik aurrera pasahitz berri bat sortu behar dudanean, badakit nola egin.

Ea aste honetan ere horren gauza interesgarriak egiten ditugun gelan.

Hurrengora arte!

Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. Zerk lagundu dio lasaiago egoten?

.....

.....

2. Zertara etorri zen irakaslea?

.....

.....

3. Zer jan zuen idazleak?

.....

.....

4. Zeri buruz hitz egitera etorri zen hezitzailea?

.....

.....

5. Norekin hitz egin zuen txatean?

.....

.....

6. Zer ez du egingo hemendik aurrera?

.....

.....

7. Nola sortzen da pasahitz seguru bat? Jarri adibide bat.

.....

.....

8. Zenbat gai landu genituen gelan joan den astean? Zeintzuk?

.....

.....